

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekin edukiko dugun harremana automatizatua izango da, web-aplikazioak eta erantzungailu automatikoak erabiliko ditugu besteak beste. Posta elektronikoz, deituz edo sare sozial desberdinetatik (Instagram, Twitter, Facebook...) erlazionatutako gara bezeroekin.

Bezeroek gure ekintzetan parte hartu dezaten, ekintza desberdinak egingo ditugu. Taldearen jokalaria desberdinek, zuzenean jolastuko dituzte partidak eta bezeroek donazioak egiteko aukera izango dute, mezu txiki bat idatziz. Orduan, jokalaria mezuak irakurri eta erantzun egingo ditu. Bestealde, taldearen marka laguntzaile desberdinekin, zozketak antolatuko ditugu taldeari harpidetuta bazaude eta zozketaren irabazleek marka desberdinen produktuak eta jokalariekin egoteko aukera edukiko lukete.